

# BIZIMINA

*Leire eta Irati maiteak:*

*Ez galdetu zeuen buruari zer gertatu den. Galdera bera egin baitiot nik jada neure bihotzari, eta ez dut erantzunik jaso. Mutu dago. Horra hor nire erabakiaren arrazoia. Bihotza isiltasunean murgiltzen denean, bizi ez den seinale baita. Eta nik, oraindik, bizi egin nahi dut.*

*Bizi egin nahi dut. Hil artean bizi. Eta bihotza sentitu taupaka. Goizeko behelainoak aurpegia laztantzen didan bitartean, abarkak kendu eta hanka hutsik barneratu zelaian. Gauak belarrean isuritako malkoak oinetako behatzen artean isurtzen utzi, eta bizi naizela sinetsi.*

- Egun on, mediku jauna.
- Egun on, Leire. Zer moduz zaudete?
- Gu ondo, mila esker. Aitagatik nator gaurkoan. Berriz aitagatik.
- Zer gertatu da oraingoan, Leire?
- Ez dago ondo: apenas jaten du. Ez du hitz egiten. Galdua ikusten dut. Bere barnean galdua. Hilobiratua bere baitan.
- Lasai, Leire. Aurreneko egunak dira. Ohituko da. Ondo ari zarete, Leire. Ez larritu. Erabaki egokia hartu zenuten ahizpak eta biok.
- Ez dakit ba, mediku jauna. Ez dakit ba...

*Zuen munduan, ordea... Zuen munduan ez dira entzuten taupadak. Ez eta txoriak kantuan ere. Soinu asko entzuten da, bai. Baina soinu hila. Eta nik bizia nahi dut. Harkaitz gainera igo eta joareen dantza entzun nahi dut bailararen handitasunean; hariztiko hostoen dilinda eroa hego haizearen erritmoan, eta sega soinuaren txistu fina sumatu iratze gorritua mozteko garaian.*

*Ez duzue ulertzen. Badakit ez duzuela ulertzen. Nola ba? Ez baituzue inoiz bizia zer den ikasi. Bizirik gabeko munduan hazi eta hezi zarete, eta ez dizuet errurik botatzen. Baina utzidazue niri ere aukeratzen. Nik kaskabeltzaren kantua entzun nahi dut goizeko lehen orduan, eta okilak enborra zulatzen sumatu ondoko pagadian. Txepetxa sasi artean ezkututzen ikusi, eta landare artetik bere kantu amaigabearekin amets egin, jaio nintzenetik egin dudan moduan. Hegoak eman nahi dizkiot nire biziari, eta zuen munduan, kaiolan baino ez naiz sentitzen.*

–Zer pasatzen da ba, Leire?

–Aitak orduak pasatzen ditu salako leihotik begira. Baina begirada galdua du. Ez du ikusten aurrean duena. Bere barne pentsamenduetan galdua dago. Arduratua nago, mediku jauna.

–Zuen aitak aldaketara ohitu behar du, Leire. Emaiozu denbora.

–Triste ikusten dut, mediku jauna.

–Depresio txiki bat baino ez da izango. Ikusiko duzu.

*Dena dudala diozue. Lau pareta artean sartu naute, eta dena dudala entzun behar dut oraindik ere. Nik, ordea, ez dut ezer zuen hiri honetan. Arima atzean utzi nuen. Bizia zegoen lekuan. Hildakoen lurraldetik arimak alde egiten baitu. Horregatik, ekarri ninduzuenerako arimarik gabeko pertsona nintzen.*

*Telebista bidez mundua ikusiko nuela esan zenidaten iritsi nintzenean, baina nik ez dut mundu hori ezagutzen. Zuen mundu artifiziala. Pantaila bat hizketan ari zait etengabe, eta ez dit berarekin hitz egiteko aukerarik ematen. Nahi duena esaten du, ezagutzen ez ditudan pertsona eta lekuei buruz, eta nik galdera asko ditut egiteko, baina ezin dut. Ez du erantzuten. Eta ni denboran luzatzen diren elkarrizketa mantsoen semea naiz. Euli-txoriaren hegaldia bezala, jiran eta bueltan ibiltzen diren solasaldien sehaskan jaioa. Isiltasunak ere bere balioa duen berrikeretara ohitua.*

*Isiltasuna. Ba al dakizue zer den isiltasuna?*

*Saiatu naiz zuen leihotik begira mundua aurkitzen, baina, alferrikakoa da. Alde batetik bestera doa jendea korrika. Arrapaladan doaz denak. Adreiluzko etxeek ordezkutzen dituzte arbolak, eta zeruari ere hirira sartzeko aukera kendu diozue. Zurruntasunaren erdian arnasa falta zait. Sorbeltzak uda hasieran bezala, zerua ikusten ez duenean ematen dion bertigoa sentitzen dut nik ere.*

*Eguzkiak lekurik ez, eta gaua ere ez da gau zuen munduan. Iluntasunari argia ematen baitiozue, bizirik gabeko zuen eguna luzatu nahian bezala. Baina iluna nagusitu orduko, leihoaz beste aldeko mundu horretan, tristura baino ez dut sumatzen. Hurrengo eguna ere berdina izango den esperantzarekin oheratzen zarete. Monotoniak irentsi zaituzte, eta abiadurak itsutu. Non bizi zareten*

*erantzuteko ere lanak dituzue. Zuen bizilekuak izena bai baitu, baina zerbait falta du: bizia.*

–Egun on, Irati.

–Egun on, Leire! Zein arraroa zu telefonoz deika ordu hauetan?

–Medikuarenean izan naiz. Aitagatik.

–Berriro, Leire? Esan nizun ez joateko. Aitak ohitu egin beharko du. Ez dago beste aukerarik.

–Antzeko zerbait esan dit medikuak, bai. Baina nik ez dut batere argi, Irati. Triste ikusten dut.

–Triste? Zer gehiago nahi du ba? Bi etxe aukeratzeko. Egun osoa telebista ikusteko, kalera irteteko... Nahi duena egiteko astia du, eta ez du lanik egin behar. Dena du eta!

–Bai, baina...

–Ze baina, eta ze bainaondoko, Leire. Ohituko da. Ez eman buelta gehiagorik kontuari.

*Zenbat denbora da izarrik ikusten ez duzuela? Gaua egun bihurtu nahi izan duzue, eta izarrak uxatzea baino ez duzue lortu. Non bizi zareten ere ezin jakin horrela. Mundua unibertsoaren handitasunean huskeria bat baino ez dela, alegia. Eta gu huskeria horretako hutsaren hurrena.*

*Nork bere zilborrari begira bizitzeak hori baitauka. Ezin ingurua ikusi bere buruari begira baino bizi ez denak. Eta sortu dituzuen hiri hauetan, besterik ba al dago? Zilbor begiraleak. Norberarenak, noski. Horiek ez dute ezagutuko*

*goroldiorik. Ezagutuko balute, agian pentsatuko luketelako zergatik goroldioak, euri asko egiten duenean, ura jasotzen duen, eta ondoren, pixkanaka-pixkanaka askatzen duen, inguruko mesederako. Edota nola arbolak hiltzean bere gorputza uzten dion bizitzari, bertan habia egin dezan; edota nola eskinosoak oihu egiten duen basoan sartzen garenean, gainontzeko animaliei abisua emanaz.*

*Bizidunen arteko kateak sortuak baitaude bizitzan; baina hemen, kateak ixteko baino ez dituzue erabiltzen. Espazio zabaletik nator ni, ordea. Begirada luzatu eta mendikateak zeruaren handitasunean ezker-eskuin marrazten diren gunetik. Gizakiak eta animaliak mugarik ez duen horretatik. Kateak ixteko baino, loturak sortzeko dauden eremutik. Errekek zein bide egin erabakitzen duten lurretatik. Txoriak adarrez adar libre dabilzan basotik. Askatasuna deitzen zaio horri. Libertatea.*

*Dena dago zuen munduan, baina hori ba al duzue? Guztiekin komunikatzeko aukera ematen omen dizue pantailak. Askatasuna deitzen diozue horri, baina ixteko eta lotuta edukitzeko katea baino ez ote da izango? Hark hitz egin, eta zuek erantzun ezin diozuen pantailaren aurrean jarri nauzue medikuak hala esanda. Baina nik hezur-haragizko elkarriketak maite ditut. Hitz egitean dardar egiten duten ezpainak ikusi, eta egunsentiko txorien kantuak nola, denborarekin doinuz aldatzen duten benetako ahotsak entzun.*

*Eta sentitu. Bizi naizela sentitu.*

–Josu. Ahizparekin hitz egin dut aitaren aferaz.

–Eta?

–Ohituko dela.

–Esan nizun, Leire.

–Josu. Aita triste dago. Ezin du hemen bizi.

–Eta, nora bidaliko duzu, bordara berriz? Ardiekin mendira?

–Josu... ez izan horren gogorra nirekin. Biziki maite dut aita, horregatik...

–Medikuak agindutakoa egin duzue, eta hori da onena.

–Eta aitari? Galdetu al diogu aitari zer nahi duen?

–Leire. Aita ondo dago. Hirira ohitu beharko du, eta kito. Hori da dena.

–Eta hirian bizi hil arte?

–Hala beharko du.

–...

–Orain Iratiren etxean dago, ezta? Arduratuko da bera aitaz.

Gurera etortzean, hitz egingo dugu.

*Irailean mokoabalak hegan pasatzen diren lurrekoa naiz ni. Sugandilak bordako horman arrautzak jartzen dituenekoa. Muxarrak intxaurrondoko intxaurrak eta zozoak sagastiko mihura jaten duten lekukoa. Ezer ez dudala han esan dizue medikuak. Oker dago, ordea. Han bizitza arnasten da segundoero. Egunerokotasunak akabatzen duela pertsona, eta norbaitek sinetsarazi dizue borda dela monotonia, eta oraintxe, zaintzeko ordua dudala eta ez dela leku egokiena.*

*Norbaitek sinetsarazi nahi izan dizue, han segundo guztiek berdin kolpatzen dutela pertsona. Baina oker daude. Segundo bakoitza biziaren opari bat delako bordan. Eta ingurura begiratzearekin bakarrik, paisaiaren koloreengatik, muskerren buruagatik eta txorien hegaldiagatik jakin dezakedalako zein urtarotan nagoen; eta eguzkiari begira, zein ordutan bizi garen. Zuei, ordea, pantailak agintzen dizue. Gizakiok hartu nahi izan dugu naturaren aginte makila, baina ez dakigu hori gobernatzerik ez dagoela. Are gutxiago hura ulertu gabe.*

–Joanes?

–Bai?

–Kaixo, Leire naiz. Josuren bikotekidea...

– Leire! Aspaldiko! A ze ezustekoa...

–Bai. Barkatu atrebentzia, baina psikologo baten aholkua behar dut...

–Gaizki zaude, ala?

–Ni ez, Joanes. Ez dakit badakizun. Gure aita...

–Bai, bai. Badakit guztia. Josuk kontatu izan digu ahizpa eta biok txandakatzen ari zaretela, eta zuen etxean izaten dela batzuetan.

–Bai. Hori da... baina oso triste ikusten dut. Badakizu aita nolakoa den...

–Bai. Ezagutzen dut, bai... faltan sumatzen du mendia eta borda, ezta?

–Baietz esango nuke, Joanes. Zein da zure iritzia? Zer egin beharko nuke?

–Zuen aitak babesak behar du orain, Leire. Eta babesak ez du esan nahi soilik gaixotasunari aurre egiteko laguntza. Burua eta bihotza ere zaindu behar dizkiozue. Gutxienez, entzun iezaiozue berandu baino lehen...

*Zer nahi duzue ba? Landareak ez hazteko asfaltoz tapatu duzue lurra, eta ondoren, loreak landatu, hirian landareak egoteko. Erreka ondoan altxatu dituzue etxebizitzak eta lantokiak, eta orain, erreka bere lekutik atera dela esanez, haserre zaudete. Amuarrainak desagertu direla kutsatu duzuen errekan, eta kaiolan dituzue sartuak txoriak, hegaztiak hiritik alde egin dutelako. Bizia kendu diezuelako.*

*Argia behar duzue, eguzkiari sartzen uzten ez diezuelako, eta izarrak pantailan erakutsi, zerua ezin delako ikusi. Dena duzuela uste duzue. Askeak zarete. Baina ez zarete konturatu, zuen bizi-kateak lotu bakarrik egiten dutela, eta gauzarik garrantzitsuena falta zaizuela: bizia.*

–Leire!! Leire!!

–Irti. Bai, esan... hartu arnasa neska. Zer pasatzen da?

–Aita, Leire. Aita!!!

–Zer pasa da?

–Ez dagoela etxean, Leire. Alde egin duela. Eskutitz bat utzi digu mesanotxean.



*Horregatik, alde egin dut. Kurriloak gaueko behe-laino artean bezala,  
noraezean nabilelako. Bueltaka leku berean. Preso. Eta irten egin nahi dut. Nire  
bidea segi. Hegan egiten jarraitu.*

*Horregatik bueltatu naiz hona. Zuen jaiotokira. Nire bizilekura. Bordara. Komun  
txiki bat, sukalde zahar bat, bi logela ziztrin eta sua baino ez dituen etxe txikira.  
Eguzkiak eta argiak lurrera iristeko askatasuna duen eremura. Lurra lur, eta  
zerua zero den mendietara. Ez nago nire bizitzako momenturik onenean.  
Minbizia dut; baina minbizia bizimin bihurtu nahi dut. Nahiago dudalako bizi  
artean hil, hildakoen artean bizi baino.*

*Maite zaituztet.*

*Aita*

–Baina, nola da posible, Irati? Alde egin duela? Ez da posible!

–Nora alde? Baina, zer dio eskutitzak?

–Eskutitzak egia dio, Leire. Egia borobila.